



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN HARREMANETAKO GRADUATUEN KONTSEILUAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, mahaikidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, mahaikidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	1
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK.....	3
A. Elkargoko kideen ordezkari-tza Kontseilu profesionalaren aldetik.....	3
B. Elkargoko kide nahitaez egin behar izatea.....	5
C. Lanbidean jarduteko baldintzen araudia.....	7
D. Profesionalen elkargoei betebeharrak finkatzea.....	8
E. Kontseiluaren osaera.....	9
IV. ONDORIOAK.....	10

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, arestian agertu den osaera duenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuei buruzko txosten hau aurkeztu du 2013ko uztailaren 24ko bilkuran.

I. AURREKARIAK

1. 2012ko abenduaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko



merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak profesionalen elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak Lanbide Elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean ¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudiaren aldaketa berriak direla eta². Estatuan nahiz EAEn, profesionalen elkargoei buruzko araudia Zuzentarau horren aurretiko beste lege batzuetan oinarritzen da, 1974ko profesionalen elkargoei buruzko Estatuko Legean³ eta Euskal Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legean, alegia⁴. Dena den, une honetan Zuzentarauaren estatuko nahiz autonomia erkidegoko hainbat transposizio-arau daude eta horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta beraz, baita profesionalen elkargoen funtzionamendu-araubidean bertan ere, Paraguas (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeetan edo EAeko 7/2012 Legean batik bat⁵.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

³ Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionalari buruzkoa.

⁴ 18/1997 euskal Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo kontseiluei buruzkoa.

⁵ Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Paraguas Legea deiturikoa); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena (Omnibus Legea deiturikoa); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.



xedatzen du Konstituzioko arau horrek: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

4. Profesionalen elkargoak ez bezala, Konstituzioan ez dira profesionalen kontseiluak aipatzen. Halere, horiek ere arau beretan oinarritzen dira.

Profesionalen elkargoei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan honako hau jasotzen da, Omnibus Legearen arabera: «elkargodun korporazioak izango dira Elkargoen Kontseilu Nagusia edo Kontseilu Gorena, Estatuko Elkargoak, Elkargoen Kontseilu Autonomikoak eta Profesionalen Elkargoak.»

18/1997 Legeak kontseiluak arautzen ditu 41. artikuluan eta honako hau dio, hain zuzen ere: «Tituludun lanbide batek elkargo-antolakuntza baldin badu, profesionalen elkargoak batuta, profesionalen kontseilu bat sortu ahal izango da.»

Honako hau dio bigarren paragrafoak: «Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta».

5. Kontseilu profesionalek araudiari men egitea ez da estatutuen eta Kontseiluaren beste arau batzuen hitzez hitzeko testuak araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela-eta, estatutuen testua gorabehera, kontseiluek eta elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, horiek lehia babesteko legedia urra baitezakete⁶.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK

A. Elkargoko kideen ordezkartza Kontseilu profesionalaren aldetik.

6. Zera xedatzen du azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 22. artikulua: «Elkargo profesionalak (...) bere helburua izango du nahitaez elkargora bildu beharra eskatzen duen dena delako lanbidea erakunde modura ordezkatzeko duen bakarra izatea; kideen interes profesionalak defendatzea eta kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda».

⁶ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



Profesionalen elkargoei buruzko Legearen 5. artikulua, berriz, elkargoen eginkizunak arautzen ditu eta, g) paragrafoan, zera xedatzen du: «Bereak diren eskumenen barruan, lanbidea ordezkatzeta eta babestea Administrazioaren, erakundeen, auzitegien edo entitate eta partikularren aurrean. Legitimatuta egongo da alderdi legetxe aurkezteko interes profesionalei daragieten auzietan. Eskaera-eskubidea ere burutuko du, Legeari jarraituz». Dena den, Omnibus Legeak elkargoko kide egin beharrarekin lotzen du ordezkari, eta hori behar bezala azpimarratu behar da.

7. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuetan, gai hori 4.c), 5.i) eta 17.c) artikuluetan arautzen da.

4. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoen Kontseiluak honako helburu hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan:

c) Elkargoko kideen interes korporatiboak babestea, Euskal Autonomia Erkidegoan eragiten duenean.

5. artikulua

Honako eginkizun hauek izango ditu bere lehiaren lurralde-esparruan:

i) Erakunde autonomikoen aurrean Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Gorenaren eta elkargoetako kideen eskubideak defendatzea, dagokion Elkargoak hala eskatzen duenean edo legez hala finkatzen denean.

17. artikulua

Lehendakariari dagokio:

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluan dauden elkargo guztien eta horietako kideen defentsari dagozkion ekintzak gauzatzea Justizia Auzitegien eta mota guztietako agintaritzen aurrean, Erkidegoko elkargo guztien izaera orokorreko arau, programa edo ebazpenen kasuan, eta betiere elkargo bakoitzari dagozkion autonomiari eta lehiari kalterik egin gabe.

8. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuetako 4.c), 5.i) eta 17.c) arauen arabera, Kontseiluak gauzatuko du Kontseiluko Elkargoen defentsa, hura Kontseilu profesionalari dagokionean. Halaber, Kontseiluak elkargoetako kideen interes korporatiboaren defentsa gauzatuko du.

Azken horiei dagokienez, aplikatu beharreko araudia guztia koherentziaz interpretatzen badugu, ikusiko dugu berariaz eskatzen dutenean bakarrik ordezkari ditzakeela Elkargoak elkargoko kideak.

Beraz, agindua bestela idatzi behar da, eta garbi utzi Elkargoko kideen borondatearen arabera dela Elkargoak haiek ordezkatzeta.



B. Elkargoko kide nahitaez egin behar izatea.

9. Elkargoei buruzko araudi konstituzionala jasotzen duen Konstituzioaren 36. artikulua Auzitegi Konstituzionalaren interpretazioaren xede izan da, eta honako hau dio: «interes publiko bati erantzuteko beharrak hala justifikatzen duenean bakarrik» izango da nahitaezkoa elkargoko kide egitea⁷. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak behar bezala gaitzen du **legegilea** hark, egokitzat jotzen duenean, profesionalen elkargoetan elkartzeko askatasunak eta lanbide-aukeraketa mugatu ditzan —batik bat elkargoko kide egin beharra finkatuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁸.

Paraguas Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra ahalbidetzen du honako kasu hauetan:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arazoak direla-eta, hala justifikatuta dagoenean. (12. artikulua)
- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)
- Beharrezkoa denean (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean). (5. artikulua)
- Haren helburua lortzeko egokia denean (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargoko kide egitea tresnarik onena denean, eta beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hobeagorik ez dagoenean). (5. artikulua)
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean. (5. artikulua)

Euskal Autonomia Erkidegoan, eta azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30.1 artikuluari jarraiki, profesionalen elkargo batean txertatu beharra eskatu ahal izango da jarduera jakin batean jarduteko. Xedapen horren arabera, «Lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, **dagokion Legean horrela jasotzen duenean**⁹. Horrenbestez, elkargoko kide egitea Lege mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik eskatu ahal izango da.

⁷ Auzitegi Konstituzionalaren 89/1989 Epaia, maiatzaren 11koa. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia aztertu daiteke, borondatezko atxikipeneko elkargoak ahalbidetzen dituena, edo apirilaren 23ko Auzitegi Konstituzionalaren 76/2003 Epaia, elkargoko kide nahitaez egin behar izatea konstituzioaren aurkakotzat hartzen duena Toki Administrazioiko idazkari, esku-hartzaile eta diruzainen elkargoen kasuan, lanbidearen antolamenduari dagokionez konstituzionalki garrantzitsuak diren eginkizun publikoak edo helburuak garatzen ez dituztelako.

⁸ Ikus, gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *As. Le Compte, Van Leuven y De Meyere c. Bélgica*, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson c. Islandia*, A seriea, 264. zenbakia; bertan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati erakunde batean atxikitzeke legezko betebeharra.

⁹ 2013ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia, Andaluziako profesionalen elkargoei buruzkoa; haren arabera, Estatuaren berariazko eskumena da elkargoan derrigorrez kide egin behar izatea edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).



Gainera, elkargoko kide egin beharra lege mailako arauen batean jaso beharko da hark Lehia defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izan dezan¹⁰. Oro har, *Omnibus* Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargoko kide egin beharraren aldaketa¹¹. Une honetan, eta profesionalen elkargoei buruzko Legearen 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, eta *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorrari jarraiki, hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu dira. Horregatik, elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta beraz, maila egokia ez izan arren.

10. Espainiako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren eta Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Estatutu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 1eko 1415/2006 Errege Dekretuaren 18.1 artikulua (RCL 2006\2236) jarduera profesionalaren baldintzak arautzen ditu eta honako hau ezartzen du:

Nazio osoan lan-harremanetako graduatu gisa jarduteko nahikoa izango da elkargo bakar batean inskribatuta egotea, haren lurralde-eremua dena dela. Elkargoek ezin izango diete komunikaziorik edo gaikuntzarik eskatu dagokien elkargoaren lurraldetik kanpo jarduten duten lan-harremanetako graduatuei, ezta jasotzen dituzten zerbitzuen truke beren kideei eskatu ohi ez dizkieten ordainak ordain ditzatela ere, elkargoko kuotak horiek estaltzen ez dituztenean. Nahitaezko atxikipena helbide profesionalaren dagokion elkargoan gauzatuko da.

Artikulu hau apirilaren 8ko 503/2011 Errege Dekretuak 2011n gauzatutako aldaketaren ondoren idatzi da (artikulu bakarra, 6. atala), hau da, *Omnibus* Legea indarrean sartu ostean. Espainiako Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren eta Lan Harremanetako Graduatuen Elkargo Ofizialen 2011. urteko aldaketaren aurretiko Estatutu Orokorretan ere

¹⁰ Aipatutako 4. artikulua horretako "Legeak salbuetsitako jokaerak" epigrafeak honako hau dio: "Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei." Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: "Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira".

¹¹ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrek: "Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko litzateke hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzailak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoaren osasunaren babesa eta osotasun fisikoaren edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez."



elkargoko kide egin beharra jasotzen zen, baina Lehiaren Batzorde Nazionalaren arabera, legegintza-aldaketekin batera onesten diren elkargo-estatutuek betebeharrak hori saihestu beharko lukete, edo gutxienez, betebeharrak hori lege maila ez duen eta aldi baterako izaera duen arau batean jasotzen dela adierazi beharko litzateke, eskakizun hori lege mailako arau batean jasotzen bitartean¹². Elkargoko kide egin beharra Estatuko lege batean zehazten ez bada, Omnibus legea urratuz onartzen diren xedapenak legearen aurkakoak izango dira¹³.

11. Azterlan honen xede diren Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuaren elkargoko kide egin behararen gaia arautu ez arren, gutxienez, lanbidearen berariazko ordezkariaren ahalmena behin-behineko izaeraz mantentzen dela jaso beharko litzateke, elkargoko kide egin beharra eskatzen den bitartean.

C. Lanbidean jarduteko baldintzen araudia.

12. Profesionalen elkargoei buruzko Legearen 1.3 artikuluan zehazten den moduan, lanbideen jarduna antolatzea da profesionalen elkargoen helburua. Bestalde, honako hau dio 18/1997 Legearen 42.1 artikulua:

1. Hona hemen kontseilu profesionalen berezko eginkizunak:

b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.

13. Laugarren artikulua arabera, lanbidean jarduteko baldintza orokorren araudian agintari publikoei laguntzea da Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoaren Kontseiluaren helburua.

4. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoaren Kontseiluak honako helburu hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan:

a) Lan-harremanetako graduatuaren lanbidean jarduteko baldintza orokorren araudian botere publikoekin batera lan egitea, haren modalitate guztietan.

5. artikulua

Bere lehiaren lurralde-esparruan honako eginkizun hauek izango ditu:

b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea, eta Legeari jarraiki, Lan Harremanetako Graduatuen lanbidea arautzea.

14. Zentzu horretan, Lan Harremanetako Graduatu gisa jarduteko baldintzek ez dute mugarik ezarri behar jarduera ekonomiko horretara modu librean sartu eta hala jarduteko. Izan ere, Omnibus Legearen xedapen indargabetzaileak "Lege honetan xedatzen dena betetzen ez duten lege edo arau mailako xedapen

¹² Lehiaren Batzorde Nazionala, *op. cit.*, 42. orria.

¹³ Lehiaren Batzorde Nazionala, *op. cit.*, 44. orria.



guztiak edo korporazio profesionalen estatutu eta elkargoko barne-arau guztiak" indargabetzen ditu. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoen Kontseiluak onartutako araubide guztiek zerbitzuei buruzko Zuzentaraua, profesionalen elkargoei buruzko 2/1974 Legea, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legea, eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea errespetatu behar dituzte.

D. Profesionalen elkargoei betebeharrak finkatzea.

15. 18/1997 Legearen 11.2 artikulua araber, lanbidearen jardura irregulartzat hartuko da: lanbideko arau deontologikoak urratzea; lanbidean behar den arretaz ez jardutea eta, ondorioz, elkargokidearen zerbitzu profesionalak hitzartzen dituztenen interesei kalte egitea; eta lehia desleiala egitea, Lehia Babesteari buruzko Legean, Lehia Desleialari buruzko Legean eta profesionalen elkargo bakoitzak lehia desleialari buruz emandako jarraibideetan eta Publizitateari buruzko Lege Orokorrean agindutakoaren araber. Arau horretan ez da inola ere jasotzen elkargokiek intrusismo profesionala lortu behar dutenik, ezta lanbidearen interesei eragiten dieten jardun ilegalak edo irregularrak ere. Betebehar hori 18/1997 Legearen 1. artikuluan zehaztutako xede orokorraren barnean sartzen dela pentsatu daiteke, elkargoko kide diren pertsonen interes profesionalak defendatzeari eta elkargokiek eskainitako zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen interesak babesteari buruzko xede orokorrean, alegia.

16. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuaren II. kapituluko 7. artikuluan elkargoen betebeharrak arautzen dira.

7. artikulua

Elkargokiek honako betebehar hauek izango dituzte:

Lanbidearen interesei eragiten dieten jardura ilegalak edo irregularrak eta intrusismo profesionalaren kasuak aztertzea, hala badagokio, dagozkion neurriak har daitezten.

17. Betebehar hori ez da azaroaren 21eko 18/1997 Legean jasotzen, Lege horretako 1. artikuluan zehaztutako xede orokorraren barnean sar daitekeela ulertu arren, elkargoko kide diren pertsonen interes profesionalak defendatu eta elkargokiek eskainitako zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileen interesak babesteari buruzkoan, alegia. Xedapen hauek ez dira lehiaren aurkakoak, baina lehiaren mugak eragin ditzakete, eta beraz, horien erabilera eta garapena behar bezala zaindu behar da; izan ere Lehiaren Defentsari buruzko Legea bete beharra ez da elkargoaren estatutuarekin mugatzen, elkargoaren ekintza eta erabaki guztietara hedatzen baita. Ez da, inola ere, ordainsarien koordinazioa erraztuko duen edo horien determinazio askea mugatuko duen elementurik gehituko, ezta profesionalen merkataritza-komunikazioetan mugarik ezarriko



ere. Azken finean, lehia desleial gisa hartzen diren kasuek hertsiki bete beharko dituzte Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legean ezarritako egintzak¹⁴.

Azkenik, elkargoak jakinaren gainean jarri behar du epailea edo eskumena duen agintaria, hark dagozkion arauak aplikatu ditzan¹⁵.

E. Kontseiluaren osaera.

18. 18/1997 Legeak ez du Kontseiluko organoen osaerari buruzko agindurik ezartzen, baina zera dio 36.2 artikuluan, elkargoen gobernu-organoa osatuko duten pertsonak kide guztien artean aukeratuko direla.

19. Gai hori behar bezala arautua dago Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluko Estatutueta 12. artikuluko c) hizkian.

12. artikulua

Ezin izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluan parte hartu: c) Kontseilari izendatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko elkargoren bateko jarduneko kide izan beharko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren barne dagoen elkargo bateko lurraldean izan beharko du helbidea eta bulegoa.

20. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutueta 12. artikuluko c) hizkian arrazoirik gabe mugatzen dira Kontseiluaren gobernu-organoa batean sartzeko aukerak; izan ere, kontseilari izendatu ahal izateko, elkargoko kideak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren barne dagoen elkargo bateko lurraldean izan beharko du helbidea eta bulegoa. Lehiaren Euskal Kontseiluaren arabera, helbidea eta bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren barne dagoen elkargo bateko lurraldean izateko baldintza ez da nahikoa Kontseiluko kide gisa dituen betebeharrak betetzeko, eta hori neurritz kanpoko oztopo bat da Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluko gobernu-organon sartu ahal izateko.

¹⁴ Lehia-egintza desleialen aurka, publizitate ez-zilegia barne, akzio hauek baliatu ahal izango dira:

Desleialtasuna deklaratzeko akzioa.

Jokabide desleiala bukarazteko akzioa edo etorkizunean hura errepikatzea debekatzekoa. Era berean, debekatze-akzioa baliatu ahal izango da, jokabidea oraindik hartu ez bada ere.

Jokabide desleialak sorturiko eraginak kentzeko akzioa.

Informazio engainuzkoak, okerrak edo faltsuak zuzentzeko akzioa.

Jokabide desleialak eragindako kalte-galerak ordaintzeko akzioa, egilean dolorik edo errurik izan bada.

Aberaste bidegabearen akzioa, zeina soilik kasu honetan izango baita bidezkoa: jokabide desleialak eskusibotasun-eskubide bateko edo antzeko edukiera ekonomikoa duen beste batek babesturiko egoera juridikoa kaltetzen duenean.

¹⁵ Lehiaren Batzorde Nazionala, *op. cit.*, 75. orria.



IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena.- Kontseilu profesionalek gauzatzen dituzten tituludun lanbideen ordezkariak eta defentsak, beren elkargoen interesak defendatzeaz gain, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

Hirugarrena.- Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Kontseiluaren Estatutuetoako artikulua hauek aldatzea planteatzen du: 4.c), 5.i) eta 17.c) eta 12. c).

Laugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuen Elkargoen Kontseiluak behar bezala errespetatu behar ditu zerbitzuei buruzko Zuzentaraua, profesionalen elkargoei buruzko 2/1974 Legea, azaroaren 21eko 18/1997 Legea eta lehia defendatzeko 15/2007 Legea, Lan Harremanetako Graduatuen lanbidean jarduteko baldintzen inguruko xedapenak zehazteko orduan.

Bilbon, 2013ko uztailaren 24an

LEHENDAKARIA
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ÁLVAREZ CASADO

KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA